

POTXO LAGUNA

Errepika :
Etxalde huntan bizi da Potxo laguna.
Begi luzea da xakurkumea.

Lehenik, goizetan, joaiten da oilategira ;
 oilarrak pikoka hor igortzen du kanpora.

Errepika.

Ez da izitzen : sartzen da xerritegira ;
 kurrinkak a(d)iturik lasterka ihesi doa.

Errepika.

Bainan jauzika badoa orain heiara¹;
 behi batek ostikoz bota du ate² ondora.

Errepika.

Horra xakurra ixilka arditegira...

Azkenean heldu da³ bildotsekin goxatzera.

Errepika (ter).

¹ heiara : barrukira, kortara

² ate : borta

³ heldu da : horra da, badator



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Zuzen kantatu.	◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatu bidez. ◆ Soinuen munduari adi izan ; soinu zenbaiten ezaugarriak bereizi eta ezagutu.	◆ Autonomia erakutsi espazioan, gauzei eta jendeei buruz ; bere gorputza ezagutu ; jokamoldea ihardueri egokitu; gorputz trebetasuna erakutsi. ◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu.
MUNDUAN IHARDUN. Gertakari segida bat gogoan eratu.	◆ Oinarritzko egintzen hautu zabalena erabili (ibili, jauzi egin, bultzatu, tiratu,...). ◆ Egintza burutzera ausartu. ◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik.	◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Baserriko lexikoa landu. Kantuen hitzak irudien bidez adierazi. Irudia ikustean, kantuen hitzak asmatu (kodetu/deskodetu). Kantuen hitzak ikasi. + ikus hizkuntza helburuak hurrengo orrialdean.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Gramatika arau batzuei ohartu (pluralaren marka,...) ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Bere burua denbora hurbilean kokatu eta hasi kronologiari ohartzen. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (itxurak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

ARIKETA ETA JOKO ZENBAIT :

- Kantua entzun eta, hurrei galdegiten zaie zein diren kantuan aipatzen diren animaliak : xakurra, oilarra, xerria, behia, bildotsa.
Non bizi dira ? Xakurtegian, oilategian, xerritegian, heian/barrukian/kortan, arditegian.
Hurrengo orrian dauden kartak moztu eta, haur bakoitzak animalia-egoitza karta pareak osatzen ditu.
- Animalien orroak entzun eta (erakasleak/animatzaileak edo hurrek imitaturik), hurrek irudi egokia erakutsi behar dute.
- Hurrek animalia bakoitzak egiten duena mimatu behar du : Potxo xakurra ibiltzen, oilarra pikoka, xerria kurrinka, behia ostikoka...
- Kopla bakoitza entzun eta, hurrei proposatzen zaie doakion marrazkiaren egitea.
Edozein kopla kantatu eta, hurrak doakion irudia erakusten du.
- Hurrek irudiak (kartak) ezartzen dituzte kantuen ordenaren arabera.
- Erakasleak/animatzaileak irudia erakustean, hurrek behar den kopla kantatu behar dute.

HIZKUNTZA HELBURUAK :

1. Kartetan irudikatua dena adierazi.

Non ? : Oiloa oilategian bizi da.
Ezezkoak : Oiloa ez da arditegian bizi (haurra nahasi denean).
Izan pluralean : Oiloak oilategian bizi dira.

2. Posesiboa : Xerriaren kurrinka.

Joskera : Xerriaren kurrinka entzun dugu.
**edun aditz lag. :* Xerriaren karta hartu duzu, du...

3. Ari :

Lexikoa : Lasterka, pikoka ...

4. Joskera :

Xerria egin (marraz) dezakegu.

5. Denborazkoak :

Lehenik, gero, azkenik.

6. Alegia tronpatzea kantatzean. Adib. Lehenik goizetan joaiten da oilategira. edo Bildotsak pikoka...

Ezezkoak : Ez da bildotsa.

☺ Karta jokoan diren marrazkiak margo itzazu.

Osatzeko, entzun :

- *Behin joan nintzen merkatura...* Kantu herrikoia.
- *Astoa, xakurra eta gata ipuina.* Elkar. Axut saila.
- *Kukurruku. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri.
- *Xerri kuttin. Marijane kanta zan!* KDa. Oskorri.
- *Domestic animals and pets. Animaux domestiques et familiers. Animales domésticos.* KDa. Auvidis distribution.



